DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA
Aita Santuaren Misio Ekintzak

HEMEN NAGO, BIDAL NAZAZU

DOMUND - MISIO IGANDEA

Urriak 18 Octubre
2020

AQUÍ ESTOY, ENVÍAME

DIÓCESIS DE SAN SEBASTIÁN
Obras Misionales Pontificias

MENSAJE DEL SANTO PADRE FRANCISCO
PARA LA JORNADA MUNDIAL DE LAS MISIONES 2020
«Aquí estoy, mándame» (Is 6,8)

Queridos hermanos y hermanas:

Doy gracias a Dios por la dedicación con que se vivió en toda la Iglesia el Mes Misionero Extraordinario durante el pasado mes de octubre. Estoy seguro de que contribuyó a estimular la conversión misionera de muchas comunidades, a través del camino indicado por el tema: "Bautizados y enviados: la Iglesia de Cristo en misión en el mundo".

En este año, marcado por los sufrimientos y desafíos causados por la pandemia del COVID-19, este camino misionero de toda la Iglesia continúa a la luz de la palabra que encontramos en el relato de la vocación del profeta Isaías: «Aquí estoy, mándame» (*Is* 6, 8). Es la respuesta siempre nueva a la pregunta del Señor: «¿A quién enviaré?» (*ibíd.*). Esta llamada viene del corazón de Dios, de su misericordia que interpela tanto a la Iglesia como a la humanidad en la actual crisis mundial. «Al igual que a los discípulos del Evangelio, nos sorprendió una tormenta inesperada y furiosa. Nos dimos cuenta de que estábamos en la misma barca, todos frágiles y desorientados; pero, al mismo tiempo, importan-

FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA
2020ko MISIOEN MUNDU JARDUNALDIRAKO
«Hemen nago, bidal nazazu» (Is 6,8)

Anai-arreba maiteok:

Eskerrak ematen dizkiot Jainkoari, joan zen urteko urrian, Ezohiko Misio Hilabetea Elizan zer nolako gogoz bizi zen ikusita. Ziur nago, elkarte askoren bihotz-berritze misiolaria sustatzeko baliagarria izan zela, aukeratutako goiburuaren bidetik: "Bataiatuak eta bidaliak: Kristoren eliza misiolari munduaren erdian".

COVID-19aren pandemiak eragin dituen sufrimenduek eta sortu dituen erronkek eragindako urte honek, Isaias profetaren bokazio-kontakizunean aurkitzen dugun hitzaren argitan jarraitzen du Elizaren misiolari ibilbideak: «Hemen nago, bidal nazazu» (*Is* 6, 8). Jaunaren galderari: «Nor bidaliko dut» (*ibid.*), ematen diogun eta beti berria den erantzuna da. Jainkoaren bihotzetik dator deia, egungo mundu krisian Elizari eta gizadi osoari zerbait esan nahi dion bere Jainkoaren errukitik. «Ebanjelioko ikasleei bezala, espero ez genuen ekaitz-haserre batek txunditu gintuen. Ontzi berean geundela konturatu ginen, ahul eta noraezean; baina, aldi berean, garrantzitsuak eta beharrezkoak, denok elkarrekin arraun egitera deituak, denok elka-

tes y necesarios, todos llamados a remar juntos, todos necesitados de confortarnos mutuamente. En esta barca, estamos todos. Como esos discípulos, que hablan con una única voz y con angustia dicen: "perecemos" (cf. v. 38), también nosotros descubrimos que no podemos seguir cada uno por nuestra cuenta, sino sólo juntos» (*Meditación en la Plaza de San Pedro,* 27 marzo 2020). Estamos realmente asustados, desorientados y atemorizados. El dolor y la muerte nos hacen experimentar nuestra fragilidad humana; pero al mismo tiempo todos somos conscientes de que compartimos un fuerte deseo de vida y de liberación del mal. En este contexto, la llamada a la misión, la invitación a salir de nosotros mismos por amor de Dios y del prójimo se presenta como una oportunidad para compartir, servir e interceder. La misión que Dios nos confía a cada uno nos hace pasar del yo temeroso y encerrado al yo reencontrado y renovado por el don de sí mismo.

En el sacrificio de la cruz, donde se cumple la misión de Jesús (cf. *Jn* 19, 28-30), Dios revela que su amor es para todos y cada uno de nosotros (cf. *Jn* 19, 26-27). Y nos pide nuestra disponibilidad personal para ser enviados, porque Él es Amor en un movimiento perenne de misión, siempre saliendo de sí mismo para dar vida. Por amor a los hombres, Dios Padre envió a su Hijo Jesús (cf. *Jn* 3, 16). Jesús es el Misionero del Padre: su Persona y su obra están en total obediencia a la voluntad del Padre (cf. *Jn* 4, 34; 6, 38; 8,1 2-30; *Hb* 10, 5-10). A su vez, Jesús, crucificado y resucitado por nosotros, nos atrae en su movimiento de amor; con su propio Espíritu, que anima a la Iglesia, nos hace discípulos de Cristo y nos envía en misión al mundo y a todos los pueblos.

«La misión, la "Iglesia en salida" no es un programa, una intención que se logra mediante un esfuerzo de voluntad. Es Cristo quien saca a la Iglesia de sí misma. En la misión de anunciar el Evangelio, te mueves porque el Espíritu te empuja y te trae» (*Sin Él no podemos hacer nada*, LEV-San Pablo, 2019, 16-17). Dios siempre nos ama primero y con este amor nos encuentra y nos

rren babesaren beharrean. Ontzi honetan denok gaude. Ikasle horiek bezala, ahots batez mintzatu eta atsekabean esanez: "galbidea da" (ik. 38), gu ere jabetu gara ezin dugula bakoitza bere kontura ibili, elkarrekin baizik» (2020ko martxoaren 27, *San Pedro Plazan egindako hausnarketa*). Ikaratuta, noraezean eta beldurrez gaude. Minak eta heriotzak, giza ahultasuna ezagutarazten digute; eta, aldi berean, denok dakigu bizi gogo bera eta gaitzetik askatzeko gogo bera partekatzen dugula. Honela, misiorako deia, Jainkoarekiko eta hurkoarekiko maitasunez geuretik ateratzeko egiten zaigun deia, partekatzeko, zerbitzatzeko eta laguntzeko aukera gertatzen zaigu. Jainkoak gutako bakoitzaren esku utzi duen misioak nortasun beldurti eta itxitik, norbere dohainez berreskuratutako eta berritutako nortasunera garamatza.

Gurutzeko eskaintzan bete zen Jesusen misioa (ik. *Jn* 19, 28-30), Jainkoak han agertzen du bere maitasuna gutako bakoitzarentzat dela, guztiontzat (ik. *Jn* 19, 26-27). Eta bakoitzaren prestutasuna eskatzen du bidaliak izan gaitezen, Bera Maitasuna baita misio jardun iraunkor batean, beti beretik ateraz, bizia emateko. Gizakiekiko maitasunez bere Seme Jesus bidali zuen Jainko Aitak (ik. *Jn* 3, 16). Jesus da Aitaren Misiolaria: bere Pertsona eta bere lana Aitaren nahiarekiko erabateko obedientzia dira (ik. *Jn* 4, 34; 6, 38; 8,1 2-30; *Hb* 10, 5-10). Aldi berean, gugatik gurutziltzatua eta piztua izan zen Jesusek, bere maitasun jardunean erakartzen gaitu: Eliza eragiten duen bere Espirituak Kristoren ikasle egiten gaitu eta misiora bidaltzen gaitu mundura eta herrialde guztietara.

«Misioa, "irteten Eliza" ez da borondatearen ahaleginez lortzen den programa edo asmoa. Kristo da Eliza bere baitatik ateratzen duena. Ebanjelioa iragartzeko misioan, Espirituak bultzatzen eta erakartzen zaituelako mugitzen zara» (*Sin Él no podemos hacer nada*, LEV-San Pablo, 2019, 16-17). Jainkoak beti maite gaitu lehenengo eta maitasun horrekin aurkitzen gaitu eta

llama. Nuestra vocación personal viene del hecho de que somos hijos e hijas de Dios en la Iglesia, su familia, hermanos y hermanas en esa caridad que Jesús nos testimonia. Sin embargo, todos tienen una dignidad humana fundada en la llamada divina a ser hijos de Dios, para convertirse por medio del sacramento del bautismo y por la libertad de la fe en lo que son desde siempre en el corazón de Dios.

Haber recibido gratuitamente la vida constituye ya una invitación implícita a entrar en la dinámica de la entrega de sí mismo: una semilla que madurará en los bautizados, como respuesta de amor en el matrimonio y en la virginidad por el Reino de Dios. La vida humana nace del amor de Dios, crece en el amor y tiende hacia el amor. Nadie está excluido del amor de Dios, y en el santo sacrificio de Jesús, el Hijo en la cruz, Dios venció el pecado y la muerte (cf. *Rm* 8, 31-39). Para Dios, el mal —incluso el pecado— se convierte en un desafío para amar y amar cada vez más (cf. *Mt* 5, 38-48; *Lc* 23, 33-34). Por ello, en el misterio pascual, la misericordia divina cura la herida original de la humanidad y se derrama sobre todo el universo. La Iglesia, sacramento universal del amor de Dios para el mundo, continúa la misión de Jesús en la historia y nos envía por doquier para que, a través de nuestro testimonio de fe y el anuncio del Evangelio, Dios siga manifestando su amor y pueda tocar y transformar corazones, mentes, cuerpos, sociedades y culturas, en todo lugar y tiempo.

La misión es una respuesta libre y consciente a la llamada de Dios, pero podemos percibirla sólo cuando vivimos una relación personal de amor con Jesús vivo en su Iglesia. Preguntémonos: ¿Estamos listos para recibir la presencia del Espíritu Santo en nuestra vida, para escuchar la llamada a la misión, tanto en la vía del matrimonio como de la virginidad consagrada o del sacerdocio ordenado, como también en la vida ordinaria de todos los días? ¿Estamos dispuestos a ser enviados a cualquier lugar para dar testimonio de nuestra fe en Dios, Padre misericordioso, para

deitzen. Bere familia den Elizan seme-alaba garelako sortzen da gure bokazio pertsonala, Jesusek erakusten digun maitasunean anai-arreba garelako. Baina, gizaki guztiek dute Jainkoaren seme-alaba izateko deia oinarri duen giza-duintasuna, denak bataioaren sakramentuaz eta fedearen askatasunaz, berez, betidanik, Jainkoaren bihotzean direna izatera deituak.

Bizia doan jaso izana, norbere burua ematearen dinamikan murgiltzeko gonbidapena da berez: bataiatuengan erantzun moduan helduko den hazia, bai ezkontzan maitasunez erantzunez, baita Jainkoaren Erreinuarekiko birjintasunean ere. Jainkoaren maitasunean sortzen da giza bizitza, maitasunean hazten da eta maitasuna du jomuga. Ez da inor Jainkoaren maitasunetik kanpo geratzen eta Jesusen, Semearen, gurutzeko eskaintza santuan, Jainkoak bekatua eta heriotza garaitu zituen (ik. *Erm* 8, 31-39). Jainkoarentzat, gaitza —baita bekatua ere— maitatzeko eta gero eta gehiago maitatzeko erronka bihurtzen da (ik. *Mt* 5, 38-48; *Lk* 23, 33-34). Horregatik, pazko misterioan, Jainkoaren errukiak gizadiaren berezko zauria sendatzen du eta unibertso osora zabaltzen da. Munduarentzat Jainkoaren maitasunaren sakramentu unibertsala den Elizak Jesusek historian izan zuen misioari jarraipena ematen dio eta edonora bidaltzen gaitu, gure fede testigantzaren bidez eta Ebanjelioaren iragarpenaren bidez, Jainkoak bere maitasuna adierazten jarrai dezan eta ukitu eta aldatu ahal ditzan toki eta garai guztietan bihotzak, buruak, gorputzak, gizarteak eta kulturak.

Jainkoaren deiarekiko erantzun aske eta kontzientea da misioa, baina Elizan bizirik dagoen Jesusekin maitasunezko harreman pertsonala bizi dugunean antzeman dezakegu. Galde diezaiogun geure buruari: Prest al gaude gure bizitzan Espiritu Santuaren presentzia jasotzeko, misiorako deia entzuteko, bai ezkon bizitzan, bai birjintasun sagaratuan edota apaizgo ordenatuan, edota eguneroko ohiko bizitzan? Prest al gaude edonora bidaliak izateko Jainko Aita errukitsuarengan dugun fedearen

proclamar el Evangelio de salvación de Jesucristo, para compartir la vida divina del Espíritu Santo en la edificación de la Iglesia? ¿Estamos prontos, como María, Madre de Jesús, para ponernos al servicio de la voluntad de Dios sin condiciones (cf. *Lc* 1, 38)? Esta disponibilidad interior es muy importante para poder responder a Dios: "Aquí estoy, Señor, mándame" (cf. *Is* 6, 8). Y todo esto no en abstracto, sino en el hoy de la Iglesia y de la historia.

Comprender lo que Dios nos está diciendo en estos tiempos de pandemia también se convierte en un desafío para la misión de la Iglesia. La enfermedad, el sufrimiento, el miedo, el aislamiento nos interpelan. Nos cuestiona la pobreza de los que mueren solos, de los desahuciados, de los que pierden sus empleos y salarios, de los que no tienen hogar ni comida. Ahora, que tenemos la obligación de mantener la distancia física y de permanecer en casa, estamos invitados a redescubrir que necesitamos relaciones sociales, y también la relación comunitaria con Dios. Lejos de aumentar la desconfianza y la indiferencia, esta condición debería hacernos más atentos a nuestra forma de relacionarnos con los demás. Y la oración, mediante la cual Dios toca y mueve nuestro corazón, nos abre a las necesidades de amor, dignidad y libertad de nuestros hermanos, así como al cuidado de toda la creación. La imposibilidad de reunirnos como Iglesia para celebrar la Eucaristía nos ha hecho compartir la condición de muchas comunidades cristianas que no pueden celebrar la Misa cada domingo. En este contexto, la pregunta que Dios hace: «¿A quién voy a enviar?», se renueva y espera nuestra respuesta generosa y convencida: «¡Aquí estoy, mándame!» (*Is* 6, 8). Dios continúa buscando a quién enviar al mundo y a cada pueblo, para testimoniar su amor, su salvación del pecado y la muerte, su liberación del mal (cf. *Mt* 9, 35-38; *Lc* 10, 1-12).

La celebración la Jornada Mundial de la Misión también significa reafirmar cómo la oración, la reflexión y la ayuda material de sus ofrendas son oportunidades para participar activamente

testigantza ematera, Jesu Kristoren Ebanjelio salbagarria iragartzera, Eliza eraikiz Espiritu Santuaren Jainkozko bizitza partekatzera? Prest al gaude, Jesusen Ama Maria bezala, Jainkoaren asmoaren zerbitzura ezbairik gabe jartzeko (ik. *Lk* 1, 38)? Barne prestutasun hori oso garrantzitsua da Jainkoari erantzuteko: "Hemen nago, Jauna, bidal nazazu" (ik. *Is* 6, 8). Hau guztia ez da zerbait abstraktua, Elizaren eta historiaren egungo errealitatea baizik.

Pandemia garai honetan Jainkoa esaten ari zaiguna ulertzea ere erronka da Elizaren misioan. Gaixotasuna, sufrimendua, beldurra, bakardadea hizketan ari zaizkigu. Bakarrik hiltzen direnen pobreziak eragiten digu, etxegabetuenak, lana eta irabazia galtzen dutenenak, etxerik eta zer janik ez dutenen pobreziak. Orain, distantzia fisikoa eta etxean egotea derrigorrezkoak bihurtu zaizkigunean, giza harremanak eta Jainkoarekiko elkarteharremana beharrezkoak ditugula konturatzeko deia jasotzen dugu. Mesfidantza eta axolagabekeria handitu beharrean, besteekiko harremanak izateko erari gehiago erreparatzeko balio behar liguke egoera honek. Eta Jainkoak gu ukitzeko eta bihotza mugitzeko baliatzen duen otoitzak, maitasunaren, senideen duintasunaren eta askatasunaren beharretara zabaltzen gaitu, baita kreazioaren zaintzara are. Eukaristia ospatzera Elizan bildu ezin izanak, igandero Meza ospatu ezin duen kristau elkarte askok bizi duen egoera partekatzea ekarri digu. Giro honetan, Jainkoaren galdera berritu egiten da: «Nor bidaliko dut?», eta erantzun eskuzabal sendoa itxaro du: «Hemen nago, bidal nazazu!» (*Is* 6, 8). Jainkoak bila jarraitzen du mundura eta herri bakoitzera nor bidaliko, bere maitasunaren, bekatutik eta heriotzatik salbatzearen eta gaitzetik askatzearen testigantza ematera (ik. *Mt* 9, 35-38; *Lk* 10, 1-12).

Misioen Mundu Jardunaldia ospatzea hau berrestea ere bada: otoitza, hausnarketa eta diru-laguntza materiala Jesusen misioa bere Elizan jarraitzeko aukera dela. Urriko hirugarren igandean

en la misión de Jesús en su Iglesia. La caridad, que se expresa en la colecta de las celebraciones litúrgicas del tercer domingo de octubre, tiene como objetivo apoyar la tarea misionera realizada en mi nombre por las Obras Misionales Pontificias, para hacer frente a las necesidades espirituales y materiales de los pueblos y las iglesias del mundo entero y para la salvación de todos.

Que la Bienaventurada Virgen María, Estrella de la evangelización y Consuelo de los afligidos, Discípula misionera de su Hijo Jesús, continúe interceediendo por nosotros y sosteniéndonos.

Roma, San Juan de Letrán, 31 de mayo de 2020,
Solemnidad de Pentecostés.
Francisco

liturgi ospakizunetan diru-bilketaren bidez agertzen den karitateak, Aita Santuaren Misio-egintzek nire izenean egiten duten misio-lana laguntzea dute helburu, mundu osoko elizen behar espiritual eta materialei aurre egiteko eta munduaren salbamenerako.

Ebanjelizatzearen izar, atsekabetuen Babes eta bere Seme Jesusen ikasle misiolari den Maria Birjina Dohatsuak jarrai dezala guri laguntzen eta gu eusten.

Erroma, Letrango San Joan, 2020ko maiatzaren 31,
Pentekoste Festaburua.
Frantzisko

¡Ay de mí si no evangelizara!
Florecer donde Dios nos ha plantado

Después del mes extraordinario misionero que vivimos en octubre del año pasado, el Domund de este año 2020 está inevitablemente condicionado por la pandemia del Covid. Alguien dijo que "estamos llamados a florecer allí donde Dios nos ha plantado". Y traduciendo esta expresión a la singularidad del momento presente, todos los misioneros están adaptando sus planes de acción al reto del momento.

Por nuestra parte, como Diócesis de San Sebastián, nos reafirmamos con nuestro compromiso adquirido en el primer momento de la crisis, abordado desde el Servicio Diocesano de Misiones y Cooperación, respondiendo a la petición de ayuda que nos ha llegado en esta emergencia del COVID desde la Diócesis del Alto (Bolivia), Chiapas (México), Guayaquil (Ecuador), y Kenia. Ahora bien, somos muy conscientes de que la campaña del Domund se caracteriza por un planteamiento universal de la tarea misionera en su conjunto. Por lo tanto, más allá de estos cuatro compromisos particulares, la campaña del Domund nos llama a abrir nuestro corazón a la catolicidad, es decir, a las necesidades universales de la Iglesia Católica, vistas desde la perspectiva del corazón misionero del sucesor de Pedro.

Por otra parte, más allá de la urgencia del momento presente, la campaña del Domund es una oportunidad inmejorable para redescubrir la vocación misionera, que está llamada a desarrollarse en todo tipo de situaciones, en tiempos de bonanza y de prueba, de salud y enfermedad. Uno de los pasajes bíblicos más emblemáticos en los que se subraya la vocación universal misionera de todos los cristianos, es la conocida exclamación de San

Errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu! Jainkoak jarri gaituen lurrean loratzea

Joan den urteko urrian bizi izan genuen hilabete misiolari ezohikoaren ondoren, 2020ko urte honetako Domund-eguna Covid delakoaren pandemiak baldintzatua dago nahitaez. Norbaitek esana da, "Jainkoak jarri gaituen lurrean loratzera deituak gaudela". Eta esaldi honen itzulpena une honetako egoera berezira eginik, misiolari guztiak une honen erronkara egokitzen ari dira beren egitarauak.

Guri Donostiako Elizbarruti bezala dagokigunez, eutsi egiten diogu krisi honen hasierakoan, Misio eta Lankidetzarako Elizbarrutiko Zerbitzuaren bidez, hartu genuen konpromisoari. Covid delakoaren larrialdia dela eta, Boliviako Alto Elizbarrutitik, Mexikoko Chiapasekotik, Ekuadorreko Guayaquilekotik eta Keniatik iritsi zaizkigun laguntza-eskariei erantzun diegu. Kontuan dugu, jakina, Domund-eguneko kanpainak misiogintza orokorraren plangintza unibertsalari begiratzen diola. Horrela bada, lau ekintza berezi hauez gainera, Domund-eguneko kanpainak gure bihotza katolikotasunera zabaltzera dei egiten digu, hau da, Eliza Katolikoaren beharrizan unibertsaletara zabalik egotera, arazoei Pedroren ondorengoaren bihotz misiolariaren ikuspegitik begiratuz.

Bestalde, une honetako larritasun-egoeraren gainetik, Domund-eguneko kanpaina egokiera ezin hobea da bokazio misiolaria berriro esnarazteko, edozein egoeratan garatu behar duen bokazioa baita, onaldian bezala zailtasunetan ere, osasunean eta gaixoaldian. Bibliako pasarterik deigarrienetakoa, bokazio misiolari unibertsala kristau guztioi dagokiguna dela dioen San Pauloren esaldi ezaguna da: "Errukiarria ni, Berri Ona hots egin-

Pablo: «¡Ay de mí si no evangelizara!» (1Co 9, 16). Estamos ante un suspiro que brota del corazón ardoroso de Pablo para despertar nuestra conciencia misionera, en el que se hace una implícita referencia a la responsabilidad que tenemos de realizar esta vocación misionera. ¿Existe un pecado de omisión motivado por no responder a la llamada a la misión?

En efecto, cada vez que escuchamos la parábola de los talentos en la que se reprocha con dureza a quien los enterró bajo tierra en vez de hacerlos producir, recordamos dicha invocación paulina: («¡Ay de mí si no evangelizara!»). El don de la fe en Jesucristo es un don inmerecido que hemos recibido gratuitamente, al modo en el que el pueblo judío recibió el don de ser escogido como el pueblo de la elección, para dar a conocer la revelación de Dios al mundo. Pues bien, siguiendo este ejemplo, al igual que una parte del pueblo de Israel perdió la conciencia de haber recibido ese tesoro para compartirlo con todos los pueblos de la tierra, enorgulleciéndose falsamente de ser una raza elegida; así también nosotros tenemos que estar atentos a no repetir el mismo error, y para ello buscar la forma en la que hagamos vida el mandato de Cristo de Evangelizar el mundo entero. «Gratis lo habéis recibido, dadlo gratis» (Mt 10, 8).

Merece la pena escuchar este 'suspiro' de san Pablo en el contexto de la carta a los Corintios: «El hecho de predicar no es para mí motivo de orgullo. No tengo más remedio y, ¡ay de mí si no anuncio el Evangelio! Si yo lo hiciera por mi propio gusto, eso mismo sería mi paga. Pero, si lo hago a pesar mío, es que me han encargado este oficio. Entonces, ¿cuál es la paga? Precisamente dar a conocer el Evangelio, anunciándolo de balde, sin usar el derecho que me da la predicación del Evangelio. Porque, siendo libre como soy, me he hecho esclavo de todos para ganar a los más posibles. (...) Me he hecho débil con los débiles, para ganar a los débiles; me he hecho todo para todos, para ganar, sea como

go ez banu!" (1 Ko 9, 16). Pauloren bihotz sutsuaren barrutik sortutako hasperen honek gure kontzientzia misiolaria esnarazi nahi du; nolabait ere, gure bokazio misiolaria gauzatzeko dugun erantzukizunari egindako aipamena da. Ez ote dago hemen misiogintzarako bokazioari erantzun ez izanetik sortzen den ezegitezko bekatua?

Hain zuzen, talentuen edo ontzako urreen parabolan gogor gaitzetsia gertatzen da, hartutako dirutza irabazpidean jarri ordez lurrean gorde zuen morroia, eta parabola hori entzuten dugun bakoitzean, San Pauloren esaldi hori datorkigu gogora: "Errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!" Jesu Kristogan fedea izateko dohaina merezigabea da, doan eman zaigu; hala izan zen judu herria ere aukeratua, munduari Jainkoaren errebelazioa ezagutzera emateko izan baitzen aukeratua. Baina Israel herriko zati batek galdu egin zuen, doan hartutako altxorra munduko herri guztiekin partekatu beharraren kontzientiza eta harrotu egin zen arraza aukeratua zelako; adibide honen harira, erne egon behar dugu, guk ere akats hori bera egin ez dezagun; horretarako bizitza bihurtu behar dugu, Kristok mundu guztia ebanjelizatzeko eman zigun agindua. "Hutsean hartu duzue, eman hutsean" (Mateo 10, 8).

Merezi du San Pauloren hasperen hau hark korintoarrei egindako lehenengo gutunaren testuinguruan entzutea: "Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu! Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe. Guztiz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. (...) Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen

sea, a algunos. Y todo lo hago por causa del Evangelio, para participar yo también de sus bienes.» (1Co 9, 16-19. 22-23).

San Pablo nos previene frente a las posibles tentaciones en medio de la tarea misionera. Nada de paternalismos propios de quien se engríe en su tarea evangelizadora. Baste recordar aquellas palabras de Cristo: «¿Acaso tenéis que estar agradecidos al criado porque ha hecho lo mandado? Lo mismo vosotros, cuando hayáis hecho todo lo que se os ha mandado, decid: "Somos siervos inútiles, hemos hecho lo que teníamos que hacer"» (Lc 17, 9-10). Para disipar cualquier sospecha de vanidad, el propio Pablo ha concluido sus palabras afirmando: «... para participar yo también de sus bienes». O, dicho de otra forma, la mejor garantía de que la misión de la Iglesia es llevada a cabo con un buen espíritu, es que los evangelizadores mantengan viva su conciencia de ser al mismo tiempo evangelizados.

En la tarea misionera, los roles de evangelizados y evangelizadores, pastores y ovejas, médicos y enfermos, están fundidos, hasta el punto de que es muy difícil determinar dónde empieza y termina cada uno de ellos.

Acaso podría desdoblarse el grito de san Pablo, al modo de un eco: «¡Ay de mí si no evangelizara! – ¡Ay de mí si no fuese evangelizado!»

† José Ignacio Munilla Aguirre
Obispo de San Sebastián

batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan" (1 Ko 9, 16-19. 22-23).

San Paulok jakinaren gainean jartzen gaitu, misiogintzaren erdian izan ditzakegun tentazioei buruz. Ebanjelizatzeko eginkizunean ez gaitezela paternalismo-harrokerian erori. Aski dugu Kristoren hitz hauek gogoratzea: «Morroiari esker ona zor ote diozue, agindua bete duelako? Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esan: "Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin"» (Lk 17, 9-10). Nolanahiko harrokeria-susmoa uxatzeko, hitz hauekin eman dio bukaera San Paulok berak esaldiari: «...Berri On horretan nik ere parte izan dezadan». Beste era batera esanda, Elizaren misioa espiritu eta asmo onez egina izan denaren bermerik onena ebanjelizatzaileek garbi izatea da, beraiek ere ebanjelizatuak direla, aldi berean.

Misiogintzan bateratuak azaltzen dira ebanjelizatuak eta ebanjelizatzaileak, artzainak eta ardiak, medikuak eta gaixoak; oso zail gertatzen da, non hasten den bakoitza eta non bukatzen den jakitea.

Honela bikoiztu daiteke San Pauloren oihu hori: «Errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu! – Errukarria ni, ebanjelizatua izango ez banintz!»

† Jose Ignazio Munilla Agirre
Donostiako Gotzaina

29º DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO

Saludo

La gracia y la paz del Señor Jesús estén con todos vosotros.

Monición de entrada

Celebramos hoy la Jornada Mundial de las Misiones, conocida como Domund con este lema: "Aquí estoy, mándame". La labor de la Iglesia es llevar la fuerza renovadora del Evangelio a todas las gentes con valentía y con esperanza. Este domingo queremos manifestar y celebrar que estamos dispuestos para esa tarea.

Abramos el corazón, para que la hermosa tarea misionera que recibimos en el bautismo resulte hoy reanimada y suscitada por Dios.

Acto penitencial

Comencemos humildemente, disponiéndonos a aceptar la misericordia gozosa de Dios.

— Tú que has venido a buscar al que estaba perdido:
Señor, ten piedad.

— Tú que has querido dar la vida en rescate por todos:
Cristo, ten piedad.

— Tú que reúnes a tus hijos dispersos: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna.

URTEAN ZEHAR 29. IGANDEA

Agurra

Jesus Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Domund, Misioen Mundu eguna dugu gaur Eliza osoan, goiburu honekin: "Hemen nago, bidal nazazu". Ebanjelioaren indar berritzailea gizaki guztiei helaraztea da Elizaren egitekoa, ausardiaz eta itxaropenez bete behar duguna. Eta egiteko horrekin PREST gaudela adierazi eta ospatu nahi dugu igande honetan.

Zabal dezagun bihotza, Bataioan jaso genuen misiolari eginkizun bikain hau Jainkoak gaur gugan esnarazi eta sutu dezan.

Damu otoitza

Has gaitezen, apal agerturik, Jainkoaren erruki gozoa onartzeko prestatuz.

— Jesus Jauna, galdua zegoena bilatzera etorria:
erruki, Jauna.

— Jesus Jauna, zeure bizia guztion erospenerako eman duzuna:
Kristo, erruki.

— Jesus Jauna, gizon-emakume guztiak biltzera etorria:
erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua eta gure bekatuak barkaturik eraman gaitzala betiko bizira.

Oración colecta

(Misa "Por la evangelización de los pueblos". Misal Romano pág. 928-929)

Oh Dios, que enviaste al mundo a tu Hijo
como luz verdadera,
derrama tu Espíritu
para que siembre la semilla de la verdad
en el corazón de los hombres y suscite en ellos la fe,
de modo que todos,
renacidos a una nueva vida por medio del bautismo
lleguen a formar parte de tu único pueblo.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

Antes de las lecturas

Todos estamos llamados a cumplir la voluntad del Señor. Él, que nos creó, es capaz de hallar en nosotros semillas de bondad, es capaz de cogernos de la mano y mirarnos con ternura aun cuando nos alejamos de Él. Hagamos nosotros lo mismo con aquellos que más nos necesitan.

Sugerencias para la homilía

La pregunta "¿A quién enviaré?" viene del corazón de Dios, de su misericordia que interpela tanto a la Iglesia como a la humanidad. En nuestro mundo intercomunicado no podemos aislarnos y tomar nuestras propias decisiones sin que influyan en los demás sectores sociales y religiosos. Tampoco podemos permanecer al margen de las decisiones que se toman, como si no fueran con nosotros. Hemos de conocer nuestro mundo y su funcionamiento para poder ser testigos del Señor.

Otoitza

("Herrien Ebanjelizatzerako" A - Meza. Meza liburua 1168-1170. orr.)

Oi Jainko,
zeure Semea bidali duzu mundura egiazko argitzat;
isuri agindutako Espiritu Santua,
gizon-emakumeen bihotzean egiaren hazia erein
eta fedearen aitormena eragin dezan;
eta egizu, denek,
Bataioaren bidez bizi berrira jaiorik,
irits dezatela zure herri bakarrean sartzea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Denok gara Jainkoaren borondatea betetzera deituak. Sortu gintuena Bera, gai da gugan onginahizko haziak aurkitzeko, gai da gu eskutik hartu eta maitasunez begiratzeko, Berarengandik aldentzen garenean ere. Egin dezagun guk ere hori bera gehien behar gaituztenekin.

Homiliarako argibideak

"Nor bidaliko dut?" galdera Jainkoaren bihotzetik dator, Eliza eta gizadia ere eragiten duen Jainkoaren errukitik. Elkarrekin hain komunikatua dagoen mundu honetan ezin dugu bakarka bizi eta erabakiak gure kabuz hartu gizarteko eta elizako beste esparruetan eraginik ez balute bezala. Ezin dugu bizi hartzen diren erabakietatik ihes ibili ere, geurekin zerikusirik ez balute bezala. Gure mundua eta bere jarduteko modua ezagutu beharrak dauzkagu, Jaunaren testigu izan ahal izateko.

Es Cristo quien saca a la Iglesia de sí misma. En la misión de anunciar el Evangelio, te mueves porque el Espíritu te empuja y te trae. No somos nosotros los que tomamos la iniciativa, sino que respondemos a la vocación que Dios nos ha dado, a la llamada que nos ha hecho. Desde esa respuesta, nuestras actitudes, nuestros gestos, nuestra predicación y caridad son el fruto de la fuerza del Espíritu Santo.

Nadie está excluido del amor de Dios. El mensaje de Jesús de ir por el mundo entero implica a toda la humanidad, nos abre a todas las culturas y a todas las dinámicas de vida evangélica. Todos tienen derecho a escuchar la Palabra de Dios, a ser invitados a participar de la vida divina. Y todo esto no en abstracto, sino en el hoy de la Iglesia y de la historia.

Comprender lo que Dios nos está diciendo en estos tiempos de pandemia también se convierte en un desafío para la misión de la Iglesia. La enfermedad, el sufrimiento, el miedo, el aislamiento, la pobreza... nos interpelan.

Oración de los fieles

Dirijamos nuestra oración a Dios, que quiere el bien de todos los hombres y mujeres:

— Para que el Señor encienda en el corazón de los fieles el deseo de anunciar la Buena noticia y alcanzar la salvación y la alegría de todos. Roguemos al Señor.

— Para que, superando las dificultades que dividen a pueblos y razas, toda la humanidad trate de vivir en igualdad y justicia. Roguemos al Señor.

— Por los misioneros y misioneras, para que su dicha sea imitar a Jesús, dándose a los demás en el servicio del Evangelio. Roguemos al Señor.

Kristo da Eliza bere baitatik ateratzen duena. Ebanjelioa iragartzeko misioan, Espirituak bultzatzen eta erakartzen gaitu. Ez gara gure kabuz aritzen, baizik eta Jainkoak emandako bokazioari erantzuten diogu, berak egindako deiari. Erantzun horretatik, gure jarrerak, gure jokabideak, gure predikua eta karitatea Espiritu Santuaren indarraren fruitu dira.

Ez da inor Jainkoaren maitasunetik kanpo geratzen. Munduan barrena joateko Jesusen mezuak, gizadi osoari eragiten dio, kultura guztietara garamatza eta ebanjelioa bizitzen den dinamika guztietara. Guztiek dute Jainkoaren Hitza entzuteko eskubidea eta Jainkoaren bizitzan parte hartzeko gonbidapena jasotzekoa. Eta hau guztia ez da zerbait abstraktua, Elizaren eta historiaren egungo errealitatea baizik.

Pandemia garai honetan **Jainkoa esaten ari zaiguna ulertzea** ere erronka da Elizaren misioan. Gaixotasuna, sufrimendua, beldurra, bakardadea hizketan ari zaizkigu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

— Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.

— Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gainditzuz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.

— Misiolari guztien alde, Jesusen antzeko izatea bedi beraien poza, Ebanjelioaren zerbitzuan besteentzat biziz. Eska diezaiogun Jaunari.

— Para que los emigrantes y los refugiados, los que la sociedad margina y todos los que se sienten abandonados se sientan protegidos por Dios y acogidos por todos. Roguemos al Señor.
— Para que Dios nos fortalezca en su amor, a fin de que seamos servidores más fieles y nos parezcamos cada día más a Cristo. Roguemos al Señor.

Oh Dios que por medio de tu servidor Moisés diste la libertad a tu pueblo; escucha la oración de tu Iglesia y haz que el nuevo Israel avance siempre superando todo mal, confiando en que siempre ayudas a quienes en ti confían. Por Jesucristo nuestro Señor.

En el momento de la colecta

Recordad [cuando se haga la colecta] que será destinada para el DOMUND.

Oración después de la comunión

Fortalecidos, Señor,
por el banquete de nuestra redención,
te pedimos que, por este auxilio de salvación eterna,
crezca sin cesar en el mundo la fe verdadera.
Por Jesucristo, nuestro Señor.

Etorkinak eta iheslariak, gizarteak baztertzen dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezen Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Moises Zure zerbitzariaren bidez garaipena eman zenion zeure herriari, ikus otoitzean bildua dagoen Eliza eta egizu Israel berriak aurrera egin dezala beti gaitz guztiak gaindituz, Zure zain bizi direnen alde egingo duzun ordua iritsi artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Ohartarazi, diru-bilketa [egiten den unean] Domund jardunaldirako izango dela.

Jaunartze ondorengo otoitza

Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneko sakramentuaren bidez;
egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker,
egin dezagula beti aurrera egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

DOMUND 2020
(2019ko diru-eskearen laburpena)

Artziprestaldea	*euro*
Beterri	12.767,13
Donostia	52.020,97
Ekialde	19.023,78
Goierri	12.566,17
Mendebalde	14.147,11
Urola-Kosta	15.564,73
Beste zenbait	4.873,28
GUZTIRA:	**130.963,17**